

B euskararen BERRIPAPERA

Bidegileak bildumako bi sorta berri kalean

Bidegileak bildumako hamargarren eta hamaikagarren sortak osatu eta argitaratu ditu Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzak. Oraingo sorta hauetan garai

dira. Idazle, kazetari eta hedabide sortzaile ere badira bat baino gehiago. Hala ere, aztarnarik sakonenak, iraunkorrenak eta emankorrenak euskaltzaleen arteko gidaritzan, aitzindaritzan eta lanean utzi zituzten, Patri Urkizuk, Mikel Atxagak, Lurdes Otaegik eta Xabier Baztarrikak ongi adierazten dutenez.

Euskal kazetaritza Euskal kazetaritzaren aitzindariak osatzen dute hamaikagarren sorta. *Eskualduna* astekarrian, *Euskal-Esnalea* aldizkarian, *Argia* astekarrian eta *Eguna* egunkarian sortzaile, zuzendari edo kazetari izan

ziren Hiriart-Urruty, Gregorio Muxika, Manu Ziarsolo, Eusebio Erkiaga, Augustin Zubikarai, Bittor Garitonaandia, Ander Arzelus "Luzear" eta abar.

Euskarazko kazetaritza ez da oso antzinakoa, baina ezta bart gauekoa ere. Mende honen hasierako euskal prentsaren berri jakin nahi duenari *Bidegileak* bildumako sorta honek emango dio, Xipri Arbelbide, Eli Garmendia, Joseba Agirreazkuenaga eta Xabier Diez Nociren eskutik.

Omenaldi eta berri

Euskalgintzan bidegile eta euskararen eta euskaltzalearen sustatzaile eta hedatzaile izan diren euskaltzaleen berri ematen da bilduma honetan, jakin badakizunez, belaunaldi gazteagoentzat eredu eta argi izan daitezten. Horregatik egiten dira eskoletako eta euskaltegietako edozein ikaslek, hamabihamalau urteko edozein neska-mutikok irakurtzeko moduko liburuxkak.

Orain arte 9 sorta, 36 liburuxka, kaleratu dira. Beste horrenbeste idazle eta euskaltzale bidegileren, beraz Azkue, Elizalde, Kanpion, Larremendi, Urkixo, Lekuona, Mitxelena, Etxaniz, Zarate, Julene Azpeitia eta abarren, berri eman da.

Ezagutzera emateaz gainera, bilduma honek esker onik eta omenaldirik ere eskaini nahi die: argazkiz eta grafikoz hornitutako liburuxka dotorea eta apaina eskainiz bakoitzari. Testuan bertan ere, naiz eta edonork erraz

eta atseginez irakurtzeko eran burutua izan, datu eta xehetasun jakingarriak eskaintzen dira, hortaratua eta aditua den norbaitek idatzia denez.

Egilearen bitzita eta lanak ez ezik, bere ingurumaria, garai hartako joerak, euskararen egoera eta abar ere aztertzen dira liburuxka hauetan. Eta idazle jakin baten inguruan burututako lana izan arren, bidenabar, haren garai-ko beste batzuk ere askotan agertu ohi dira.

SUMARIOA

- 1** *Bidegileak* bildumako bi sorta berri kalean
- 2** Laburrak
Jaime Kerexeta
Agenda
- 3** *Hitzaro eta Lengua viva*: laugarren urtea ikusleekin batera
Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia
Euskara indartzen Labein-en
- 4** HAAEren webgunea



desberdineko euskararen zuzpertzzaileak eta euskal kazetaritzaren aitzindariak nahi izan dira ezagutzera eman.

Anton Abbadia, Sabino Arana, Jose Maria Ariztimuño "Aitzol" eta Rikardo Arregik, aldi eta garai desberdinetan euskarari eta euskaltzalearen astindu handia eman zion laukoteak, osatzen dute lehenengo sorta.

Euskalgintzako zuzia bata bestearen ondoren eta ia-ia bata bestearen eskutik hartu zuten. Mende oso bateko eusko pizkundearen zutabeak



LABURRAK

EAEko bost epaitegi euskaraz ari dira

Euskal Autonomia Erkidegoko bost epaitegi euskara lan hizkuntza modura erabiltzen hasita daude dagoeneko. Bizkaian Bilboko instrukzioko seigarrena eta lehen instantziako zortzigarrena, eta Durangokoa; Gipuzkoan, Donostiako Auzitegi Probintzialeko hirugarren atala eta Bergarakoa.

Hala eta guztiz ere, epaileak, fiskalak eta idazkari judizialak egitasmo honetatik kanpo geratu dira oraingoz, Eusko Jaurlaritzak ez baitu eskumenik eurei dagozkien esparruetan.

Justizia Sailak landutako plan baten ondorioz hasi da euskara epaitegietan sartzen, bost sala judizial horietan diharduten funtzionarioek eginbeharrak euskaraz bete litzaketela ikusitakoan.

Plangintzan parte hartzen duten langileak, ikastaroa jaso dute HAEEn eskutik.

Gabiria eta Apalategi Igartza beken irabazleak

Galdakaoko Julen Gabiriak irabazi du aurtengo Igartza Literatur Sorkuntzarako Beka Oroimenaren bila, *ihesian* izeneko eleberri-proiektuarekin.

Orain arte ipuingintzan jardun duen honek, 500.000 pezeta-ko beka izango du lana burutzeko.

Epaimahaiak, aurkeztutako lanen maila ikusita, Ur Apalategi idazle baionarrari 300.000 pezeta-ko akzesita ematea erabaki du.

Saritutuek urte beteko epea dute saritutako proiektuak eleberri bilakatzeko.


Jaime Kerexeta

On Jaime Kerexeta, *Arantzibia* izengoitia hartu zuen olerkaria, hil zen pasa den udan, 80 urte zituela. Musikalari, idazle, itzultzaile, artikulugile eta euskaltzain izateaz gain, Bizkaiko euskararen sustatzaile sendoenetakoa ere izan zen abade hau.

Jaime Kerexeta Elorrión jaiotzen 1918. urtean eta 29 zituela eman zuen meza berria. Musikarako dohain bereziaren jabe, Bilboko kontserbatorioan irakasle postua lortu zuen. Burgo Schola Cantorum abesbatzaren zuzendari izan zen eta organo-jole Sevillan eta Urkiolan.

Musika-zaletasuna eta erlijiozko liburuen ugaritasunak osatzen du Jaime Kerexetaren lana. Itzulpen mordoan egin zuen bere bizitza osoan, eta guztien artean aipagarriena, 1976ko Euskal-Biblia izan daiteke. Biblia osoa bizkaierara itzultzen zen lehen aldia zen.

*Arantzibia*ren lanik gehiena erlijio-gaiek bete badute, bestelakoak ere landu zituen, *Iparagirreraren bizitza* (1978) edo *Gernikako beste arbola* (1979), eta hiru olerki-liburu: *Orbelak* (1958), *Bitargi* (1969) eta *Udazken* (1980).



AGENDA

Joseba Jaka literatur-bekak

Euskalgintza Elkarlanean Fundazioak literatur sorkuntzarako II. beka-deialdia egin du, horretarako 10 milioi pezeta bideratuz. Olerkia, eleberria, saiakera eta gazte-literaturako egitasmoek jaso ahal izango dituzte dirulaguntzak. Proiektuak **abenduaren 19a baino lehen** bidali behar dira honako helbide honetara: Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa, Portuetxe kalea 88, 20.009 Donostia. Tel.-Fax: 943-219427.

Gabriel Aresti ipuin-lehiaketa

Bilboko Udalak Gabriel Aresti ipuin-lehiaketarako deia egin du. Ipuinak **urriaren 30a baino lehen** aurkeztu behar dira Bilboko Udaleko Kultura eta Turismo Sailean. Hala euskarazko, nola gaztelaniazko modalitateetan, 500.000 pta.ko sari bana eta 200.000 pta.ko bina akzesit daude. **web:** <http://www.bilbao.net>

Euskal zinema eta bideo bilera Lekeition

Abenduaren 4tik 7ra egingo da Lekeition XXI. Euskal Zinema eta Bideo Bilera (EZBB). **Aurkezteko epea urriaren 16an amaituko da.** Informazio gehiago EZBBn. 32 Posta kutxatila, 48280 Lekeitio. Tf: 94 684 12 21. E-Posta: ezbb@ibercom.com. Web orrialdea: <http://www.qmz.com/ezbb/>

Irudi eta bertsolaritzako lehiaketak Leioan

Datorren **azaroaren 6an amaituko da** Leioako Udalak antolatutako **argazki, diapositiba, bideo** eta **bertso lehiaketetan** parte hartzeko **epea**. Oinarrien eta sarien gaineko informazio gehiago nahi izanez gero, helbide eta telefono hauetara jo: Leioako Kultur Aretoa, Koordinazio Kulturala, Sabino Arana kalea, 67 behe - 48940 Leioa (Bizkaia). Telefonoa: 94 463 70 88.

★ Ahoz aho, belaunez belaur ... hil honetan non?

Oiartzunen eta Lezon, urriaren 5etik 11ra bitartean.
Errenterian, urriaren 12tik 18ra bitartean.
Pasaian, urriaren 19tik 25era bitartean.

Hitzaro eta Lengua Viva: laugarren urtea ikusleekin batera

Euskarari buruzko berriak irudietan astebururo

Laugarren urtea egingo dute *Hitzaro* eta *Lengua Viva* telebista saioek ETBren leihoan. Euskararen gaineko berriak ematen eta zabaltzen ari dira saio hauek lehenengo-lehenengo programaz gero eta milaka honezkero euskararen alde lanean ari eta bi programetan ageri izan diren euskaldunak. Askotariko euskaldunak, izan ere: intelektual zein artista, kirolari eta aktore, idazle, sortzaile, zientzialari, kazetari... Eta, hala ere, ezaugarri bat bera izan dute *Hitzaroren* eta *Lengua Vivaren* leihoetara hurrera diren denek: euskaraz ari dira, eta gure hizkuntzaren alde.

Laugarren urtea Euskal Telebistaren programazioan eta agindu dituzte gai berriak: euskarak auto-eskoletan duen presentzia, antzerki amateurraren lehena eta oraina, Rikardo Arregi hemeroteka, Obabakoak-en hamargarren urteurrena, e.a.

Era berean, hainbat elkarrizketa mamitsu ere agindu dituzte eta telebistako bi saioetan agertzekoak dira euskalgintzan ari diren asko eta



asko: Ruper Ordorika, Daniel Lardart, Asun Balzola, Begoña Vicario, Joxe Azurmendi... Askotariko euskaldunak, euskararen alde lanean. Apal hasi zen asmoa baina ikuslego leiala sendotu dute bi saioek joan den lau urte honetan. Ez hitzordurik hutsegín: larunbat eta igande eguerdian, *Hitzaro* eta *Lengua Viva* ETBren pantailan.

Euskara indartzen Labein-en

Abian da une honetan Euskara Areagotzeko Plana Labein-en, Zamudioko enpresa-parkeko teknologia-zentro aurreratuan. Plana etengabeko prestakuntzarako egitarauaren barruan kokatu da eta helburu ditu, besteak beste, enpresako langileak elebidun bihurtzea, horretarako baldintza egokiak jartzea, eta Labein, bere inguruan nahiz gizarteak eskatzen duen elebitasun-markoan ondo integratuta teknologia-zentro aurreratu gisa ezagutaraztea. 1998-2000 bitartean hainbat ekintza gauzatuko dira, batik bat enpresa irudiari, kanpoko eta barruko komunikazioei, langileen hizkuntz trebakuntzari eta langileen nahiz bekadunen hizkuntza-politikari dagozkienetan. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzak eta Labeinek hitzarmena sinatu zuten 1997an plan hau bultzatzeko. Oso positibotzat jo daiteke egun planak izan duen garapena eta baita burutzear dauden ekintzak ere.

Euskararen Aholku Batzordea / Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia

Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak 1998ko uztailaren 28an Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartu eta Legebiltzarrari aurkezteko erabakia hartu zuen. Horren aurretik, Euskararen Aholku Batzordearen maiatzaren 20ko eta ekainaren 24ko Batzorde Osoetan hain zuzen, Lege-garapeneko eta Jarraipeneko batzorde-atalak eratu ziren eta bertako kideak izendatu, hurrenez hurren.

Jarraipeneko Batzorde-ataleko kideak izendatzeko, Euskararen Aholku Batzordeko Batzorde Osoko eta lehengo batzorde-ataletako

kide guztiak hartu ziren kontuan eta, inkesta bidez, batzorde-atal bakoitzeko hiru kide eta Batzorde Osoko sei kide aukeratu ziren, batzorde-buruaz eta idazkariak gain.

Jarraipeneko Batzorde-atalak ebaluazio-adierazleak finkatuko ditu eta horien arabera Planaren betetze-maila neurtu.

Lege-garapeneko Batzorde-atalean izango diren guztiak, berriz, legelariak dira; hain zuzen ere, Plana aurrerantzean garatzeko lege-aholkularitza eskaintzea izango baitu egiteko nagusia batzorde-atal honek.

HAEERen webgunea

Administrazioari kontsultak egiteko webgunea, www.ivap.org sortu du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAE-IVAP). Orri honetako azken berrikuntzak orain dela gutxi sartu dira. Honela, bai Euskal Administrazioak antolatzen dituen ikastaro guztien berri, bai lan eskaintza publikoari eta lan-politsei buruzko informazioa, astero berrituta, ematen da. Bakoitzari egokitutako lan-eskaintzak ere nork bere ordenagailuan jaso ditzake, webivap@ivap.es helbide elektronikoan eskatuz gero.

Webgunearen beste esparru bat Administrazio hizkera eta euskalduntzeari dagokiona da. Atal honen bidez Administrazio arloko euskera finkatzeko eta normalizatzeko lana egiten da. Adibidez, eguneroko lanean euskararen inguruan sortzen diren galderak erantzuteko kontsulta-zerbitzu bat dago. Kasu honetan ere, erantzunak ahalik eta azkarren bidaltzen zaizkie bezeroei, fax-ez edo posta elektronikoaren bidez. Zerbitzuak kalitatezko hizkeraren erabilera sustatzen du, baina era berean, erraz ulertzeko modukoa.

Europa guztiko erakunde publikoen helbideen zerrenda topa daiteke orrian. Eskeintzen duen informazioa lau hizkuntzatan eskura daiteke: euskaraz, gaztelera, frantsesez eta ingelesez.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza
Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:.....
.....
.....
Helbidea:
.....
Herria:.....
Kodea:
Lurraldea:
Tel.: